

Kontsignaz haratago, literatura.

Literatura, kartzelaz honatago.

Olerki fosila den hizkuntza mundua ezagutzen saiatzeko baliabide literario dugu, kontsignaz haratago.

Kartzela, hitz fosilizatua eta erregarria ere badena, berriztagarri bihurtzeko mintzairak eta gizarte joerak berri beharra daude.

Bada garaia, Alojz Ihan, esloveniar poetak zioenez:

“Bada garaia
elkarri hitz egiteko,
zerbaitez hitz egiteko
edo partekatzeke, bada, behintzat,
zerbait partekatzeke balez, behintzat.

Bada garaia, edo laster,
hori gabe ere geratuko gara.”

Illo beretik doa egun euskaraz irakur daitekeen Zarko Petan Esloveniako idazle ezagunak, kaleratutako liburu ugarien artean, lehendabizikoa (1966) non, kartzelaldiaren eraginez idatzi zuen eta, berak zioskunez, eskarmentu hori bizi gabe ezin esan egun bere emaitza literario zabala bezain umoretsu ezagutzeko parada izango genukeenik. Maiz adierazi izan du satiraren maisu horrek espetxeak nola markatu zituen bere idaztankera eta gaiak, haren testuen ikuspuntua eta jomugak:

“Zorretan nago agintearekin nigana izan duen eraginarengatik...jazarri eta bakartu izan ez banindute, ez nuke sekula idatziko ”¹.

Gauza bera esan genezake guretako askok. Espainiako espetxeetan behin baino gehiago kartzelatu izan ez bagintuzke ez ginateke, agian, idazle izango.

Baina gure esperientzia, aipatu Petanena bezala bestalde, euskal literaturaren historia argitzeko ere balio lezake zeren, gurean, hala idazkiak nola idazleen berri ematerakoan, nekez esan daitekeen ezer

¹ “Zarko Petan” in EGAN. 2006-1/2. 97.or.

giltzapean izatearen esperientzia aipatu gabe zeren eta, kartzela aipatu gabe, euskal letren bilakaera azaltzea ezinezkoa litzateke.

Linguae Vasconum Primitiae (1545) idatzi zuen gure lehenengo poeta ezagunak, Bernat Etxepare, Bearnen eduki zuten giltzapean arazo politikoengatik ², euskal letren pizkundea zaindu zuen Aitzol, kartzelatik pasatu ondoren fusilatu zuten (hark *su izkillatu* idatziko balu ere...), gauza bera gertatu zen Lauaxeta gure poeta sinbolistarekin, baita euskara literarioaren proposamen garaikidea egin zuen Koldo Mitxelenarekin ere, zeinak filologia ikasten hasi zuen espetxe frankistetan.

Euskal eleberrigintza modernoaren aitzindariak (Txillardegia), kartzelatik igaro ondoren, erbestetik idatzi behar izan zuen, eta gure egungo idazle loratuenak (Joseba Sarrionandia) batek daki nondik bidaltzen dituen bere testuak Donostiako espetxetik San Fermin egunen batean fikziozkoa zirudien ihesaldia burutu zuenetik...eta ez da bakarra. Giltzapean egon dira Xabier Amuriza, Mario Onaindia edo Mitxel Sarasketa, esaterako. Barruan daude egun Jokin Urain, Mikel Antza eta beste asko (eta nola!...)

Azken Gerratean, nazionalista espainiarrak Hego Euskal Herrian gailendu zirelarik, euskal liburuak debekatzeari gain, sutara ere bota ohi zituzten. Gure literaturaren aurkako aspaldiko inkisidore prozedura horren berri geratu zaigu, adibidez, Tolosan edota Donostiako Garibai kaleko gerra ondoko erreketetan zeinetan, euskal literaturarekin batera, euskal hiztegiak ere desagerrarazteko izugarrizko lana hartu zen.

Euskaraz hitz egitea debekatu bazuten ere ez zen hori ardura bakarra, euskaldunok gure istorioak kontatzea eta hedatzea galarazi nahi izan zuten haiekin, kontsignaz haratago joan ahal izatea, alegia. Euskaldunek jasandako jazarpenak eta torturak, kartzelaldiak eta debekuen berri ezkutatu nahi izan zuten betiko. Ildo horretatik ez zuten errepresioa txartzat hartzen inongo giza eskubideetan oinarriturik baizik eta haren berri zabaltzeak haien aurka bihur zitekeelakoan.

² Urquijo, J, (1933) **RIEV**, 24. 664 or. eta hurrengoak.

Euskal Herriak eta euskal herritarrok pairatu behar izan dugu aspaldidanik espainiar indar armatuen bortxa(ikus “Euskal Memoriak” berriki kaleratutako hirugarren liburukia...), gurea nolabaiteko kolonia den neurrian eta, halaber, azken urteotan nolabaiteko gerran iraun behar izan dugun neurrian ere bai.

Gatazkaren konponketan kartzela jasan dituzten pertsonen garrantzia horretan datza, hain juxtu. Haiek dira iritzi publikoaren aurrean beren eskarmentuak eta gogoetak zabaldu behar dituztenak. Ostendurik dagoen botere asimetria ikustarazteko eta, finean, egun kartzelan dauden euskal preso gehienak bortxa dela medio barrura bidali dituztelako beren buruen aurkako aitormena egitera beharturik. Horretaz hitz egiteko zein idazteko...bada garaia. Biktima guztiak gogoan. Txillardegik zioen bezala, “gure hizkuntza den olerki fosillaz” kontatuta eta idatzita, Egun oraindik atxilo daudenen egoera ikustarazteko.

Urtarrilaren 12an aukeran dugu.